



Gizakia zentzu bila. Viktor E. Frankl

Itzultzaileak: Lontxo Oihartzabal eta Miren Arratibel

ISBN: 978-84-9109-212-4

Orriak: 216

Saila: Oroimenean barrena, 10

Salneurria: 16 €

Aurkezpen ekitaldia
Donostia, 2017ko urriak 26

Bizitzaren zentzu bila

Gizakiok galderak egiteko joera zorionez dugu. Erantzun zaileko galderak egitekoa ere bai. Erantzun bila laguntza eske joatekoa ere bai.

Ni liburu hau irakurtzean bezala. Liburu hau (aldiz bizarra zutik jartzen badizu ere) oso gustura irakurri dut. XX. Mendeko liburua delako, historiak eman duen mende harrigarri bezain beldurgarri horretakoa, hemen gauden denok mundura ekarri gintuen mendekoa. Liburu honek XX. mendeko galderei erantzuten die, era zintzo eta ausartean erantzun ere; erantzunak oso zailak zirenean, gainera.

XXI. mendeak galdera berriak eta latzak sortu dizkigu:

- Gure planeta txiki hau, sortarazi dugun arazo ekologikoa eta aldaketa klimatikoa medio, zenbat denboran gertatuko zaigu bizileku?
- *Homo sapiensak* ba al du etorkizunik. Bizidun oro, gu ere, algoritmo hutsak bagara, inteligentzia artifizialak berehala ez al gaitu jango, gaur hitzez dogma dugun pertsonaren duintasuna ez al zaigu laster farregarri gertatuko?

Galdera latzak dira hauek, baina are eta latzagoak gertatuko dira, erantzun ezinezkoak, XX.mendeko galderei ihes egiteko joerari aurre egiten ez badiogu.

Liburu honek ez die uko egiten, heldu egiten die egiaz, eta erantzun zailak bezain inportanteak eman ere bai.

Gaizkia, sarraskia, gorrotoa, sadismoa, eta ondorioz injustizia, ezina, miseria eta sufrimendua nagusi direnean ere (harrokeriak, gregarismoak, gerrak, Auschwitz, ...) , gizakiaren handitasuna, gizakiaren ethos-a, honen zutabe eta balioak, bizirik mantendu daitezke; eta hala egiten bada, bizirauten, aurrera irtetzen, lagundu egiten du. Bizitzearen aldeko apustuan mantentzen du gizakia.

Orain agertuko diguten liburu hau gizakiaren ethosari kanta benetako bat da, gizaki mugatu, baldintzatuaren libertate mugatu eta handiaren aitopen bat, bizimodu mugatuenean ere mantendu daitekeen eta behar denaren aitopena. Gizakiok dugun erantzukizunerako eta solidaritaterako deia da gainera, eta sufrimendua eragitearen aurkako mezua bezala, sufrimendu ezinbestekoari ausart aurre egitekoa.

Jexuxmari Mujika Arakistain
Etikako irakaslea izana

Nire aurkezpena bi pertsona motari zuzendutakoa da.

Batetik, ez egilea –Viktor Frankl (1905 - 1997)– ez obra –Gizakia zentzu bila–ezagutzen ez dituzuenoi zuzendutakoa.

Eta, bestetik, nola obra, hala egilea ezagutzen dituzuenoi zuzendutakoa.

Lehenengoei, alegia Frankli buruz inoiz ezer entzun ez duzuenoi, esango dizuet bere lan hau 48 hizkuntzara itzulita dagoela.

Viktor E. Frankl Logoterapiaren sortzailea da, zenbait egilek baieztatzen duten moduan Psikoterapiaren hirugarren vienar eskola osatzen duen metodo terapeutikoaren sortzailea (lehenengo biak Freud-en Psikoanalisi eta Adler-en Psikologia indibiduala dira).

Liburu hau psikoterapeutei eta osasunaren arloko profesionalei bideratutakoa da; bizitzako sufrimendu-uneetan beste pertsona batzuei laguntzen dieten pertsoneri bideratutakoa; eta, azken batean, bere bizitzako uneren batean bizitzak duen esanahiari buruzko galdera saihestezinari aurre egin behar izan dion zeinahi pertsonari bideratutakoa.

Zinez gai berezia da; batez ere, kontuan izanda gure bizitzak egiazko esanahirik ez duela dioen sentipen orokorra dagoeneko nabarmen txertatu dela gizarte garaikidearen zimenduetan.

Franklek bere obran, beraz, pertsona zein bizitza ulertzeko arrasto pertsonalak proposatuko dizkigu. Sormen-balioak, bizipen-balioak eta jarrera-balioak, berak nazien kontzentrazio-esparruan izandako esperientzia dramatikoan (ez zehazki berak hautatutakoan) praktikan jarri zituenak.

Ez da autolaguntza-liburu bat, errezeta miraritsuak biltzen dituena. Baina liburu hau irakurtzera gonbidatu nahi zaituztet. Sufrimenduari aurrez aurre begiratzen dion gizonaren esperientzia pertsonalaz dihardu liburuak; gizon horrek egunetik egunerako bizitzan hainbat arrasto topatuko ditu, Trabak traba, bizitzari bai esatera eramango dutenak.

Liburu hau bi obrak osatzen dute: Psikologo bat kontzentrazio-esparru batean (1946) eta Logoterapiaren oinarrizko kontzeptuak (1962). Bi obrak euskarara itzulita daude; alemanetik lehenengoa, eta ingelesetik bigarrena.

Eta obra zein egilea ezagutzen dituzuenoi gauza bakarra daukat esateko: azkenean, badugula euskarazko itzulpena.

Javier Aranguren Aranguren
Espainiako Logoterapia Elkartearen (AESLO) lehendakariordea
Gipuzkoako Logoterapia Foroko kidea

Hainbat zehaztapen biografiko

Jada aipatu denez, 1905ean jaio zen Viktor Frankl Vienan, eta bertan zendu zen 1997an: 92 urte zituen, beraz, hil zenean. Datu harrigarria benetan, kontzentrazio-zelai bateko miseriak nozitu izan zituen pertsona batengan.

Medikuntzako psikiatrian prestatu zen gazte zelarik Vienako unibertsitatean, eta doktorego-titulua lortu zuen 25 urte besterik ez zuenean. Mediku bezala lan egin zuen kontzentrazio-zelaira behartu zuten bitartean. Rothschild ospitaleko neurologia saileko buru izendatu zuten 1938an.

Gurasoak, emaztea, anaia eta koinata kontzentrazio-zelai ezberdinetara eramane zituzten naziek. Heriotza aurkitu zuten guztiek bertan. Familian berak bakarrik lortu zuen bizirik irautea.

Neurologia saileko buru izan zen 25 urtez Vienako ospitale poliklinikoan. Vienako unibertsitatean jardun zuen urte luzez neurologia eta psikiatria irakasten; 85 urte zituenean utzi zion han irakatsi eta mintegiak gidatzeari.

Ipar Ameriketako Harvard, Stanford, Dallas, Pittsburg eta San Diego hirietako unibertsitateetan ere irakatsi zuen 1961tik aurrera.

39 liburu argitaratu zituen Neurologia, Psikiatria eta Logoterapiaren inguruan, 45 hizkuntzetara itzuliak izan direnak. 29 unibertsitate ezberdinetan izendatu zuten Ohoreko Doktore (Doctor Honoris Causa).

Liburu honen inguruan

Dachau-ko kontzentrazio-zelaia utzi zuen urte berean (1945an) idatzi zuen Viktor Frankl-ek bere liburu ezagun hau. Helburua liburuko lehen orrialdean adierazten du: *Nolako aztarnak utzi ditu zigortutakoen batzbestekoaren ariman kontzentrazio-zelaiko egunerokotasunak*. Xede horren inguruan dihardu liburu osoan zehar.

Egoera hark gizakiaren bizipenetan izandako eragina eta utzitako ondorio psikologikoak aztertzen saiatuko da hasiera beretik. Baina, ez du edozein zelaikide hartuko bere azterketak egiterakoan: *zelaikide xumeena, besteengandik bereizteko besoan oihal-zintarik ere ez zeramana* izan baitzen kontzentrazio-zelaian *mafiaburuek (zelaiko kapoek) gehien zanpatu zutena*. Horra, beraz, xedea eta hori betetzeko hautatutako populazioa ere.

Dena dela, ideia nagusi batek gidatzen ditu Frankl-ek liburu honetan zehar egiten dituen deskribapenak eta burutzen duen azterketa guztia. Euskarazko bertsio honen 133gn orrialdera jo beharra dago horretaz jabetzeko: *Erabateko eraldaketa gertatu behar da bizitzaren zentzuaz galdezka hasten garenean: geuk ikasi behar dugu lehenik, eta ondoren irakatsi zalantziari, arazoa ez dela, inolaz ere, bizitzak zer eskaintzen digun galdetzea, bizitzari geuk zer eskaintzen diogun iatuntzea baizik. Filosofiaren ikuspuntutik modu egokian hitz eginez gero, halako eraldaketa kopernikar bat eman beharko litzateke gure galdera-moduetan: ez genuke bizitzaren zentzuaz galdetzen jarraitu behar, baizik eta zera sumatu beharko genuke geu galdegile garen neurrian, bizitzak berak egiten dizkigula, jirabiraka eta esamesetan bili gabe, zuzen-*

zuzenean erantzun beharreko galderak egunero eta orduero, ekimenez eta jokatzuz soilik erantzun daitezkeen galderak (133). Liburua ulertu ahal izateko ideia-gidaria da hori, nire ustetan.

Adierazi dezadan hasieratik, gozotasunari eta atsegingarritasunari inolako aukerarik uzten ez dion hizkera dela Frankl-ek liburu honetan darabilena. Hizkera zehatza, zuzena eta zurruna da liburu honetakoa. Eta, nire iritziz, berak nahita idatzi zuen era horretan liburu hau. Hala dio liburuaren lehen orrialdeetako batean (testuan 3gna, liburuan 27an): *Okerra izaten da normalki kontzentrazio-zelai batean inoiz izan ez den kanpo-begirale batek han barruko egoeraz moldatzen duen irudia, hango bizitzeko erari sentimenduen begiez begiratu eta egoeraren garrantasuna arintzeko joera duenean bereziki, ez da-eta bertakoek bizirauteko elkarren aurka egin beharreko borrokaren gordintasunaz jabetzeko gai.* Irakurlearen berezko joera horri aurre-egin nahi dio, inondik ere, Frankl idazleak hizkera garratza, lehorra eta sarkorra aukeratu duenean bere lana burutzerakoan.

Ba dut halako susmo bat liburuaren itzulpenei dagokienean: Frankl-en jatorrizko hizkera hori arintzen eta atseginagotzen ahalegindu dira itzultzaileak, gaztelaniazko eta ingelesezko bertsioak moldatzerakoan behintzat. Hori da nik euskarazkoa moldatzerakoan jaso dudan susmoa, beste bi hizkuntza horietakoak alboan izan baititut badaezpada ere. Arindu ez-ezik, zenbait pasarte ezatsegin ezabatu ere egin dituzte behin baino gehiagotan, horrelako pasarte horiek laburrak izan badira ere ia beti.

Jatorrizko hizkeraren lehortasuna eta zurruntasunari leial izaten ahalegindu naiz euskarazko bertsio hau moldatzerakoan. Aitortu behar dut, era berean, Frankl-en alemanierak ez diola inolako zailtasun berezirik sortzen itzultzaileari: oso ulergarria eta arrunta da bere hizkera zentzu horretan. Euskarazko ordainik egokienak aukeratzeko orduan sortzen dira arazoak eta zailtasunak, sentipen eta bizipenen munduan baitabil gehienetan. Hori izan da, behintzat, ni gehien nekarazi nauena.

Pasarteak irakurtzerakoan eragiten zidaten zirrara eta hunkidura ere gaintitu beharrean aurkitu naiz behin baino gehiagotan. Ez da lan erraza izan liburu hau sentiberatasunik gabe itzultzea. Nik, bederen, ez dut lortu; eta itzultze-lana eten beharrean aurkitu naiz behin baino gehiagotan: atsedentxo hartu beharrean, alegia, berriro itzulpenarekin jarraitu ahal izateko gero.

Hunkidura, haserrea, amorrua, ernegua eragiten dizkizute ehunka pasarteetako gertakariak: nolatan joka dezake hain modu basatian XX mendeko gizakiak?, galdetzen diozu harrিতa zeure buruari. *Homo homini lupus*, zioten erromatarrek: gizakia otso da kidearentzat. Argi eta garbi ikus daiteke hori liburu honetako orrialdeetan barrena. Basatikeria beldurgarriak egiten ditu gizakiak gizakiaren duintasunari zor zaion begirunea galtzen duenean. Horren adibide gorenetakoa dugu Frankl-ek ondare bezala utzi digun lan hau.

Bera bezala, judu izateagatik kontzentrazio-zelaira zigortutakoen artekoak izan zituzten etsai gogorrenetakoa. Hona zer dion "mafiaburu edo kapo" bezala izendatzen dituen horiei buruz: *Horrelakoen psikologiari eta izateko moduari dagokionez, SStakotzat edo zelai-zaindarien hartu behar dira mafiaburu horietakoak; horrela epaitu beharreko giza izaera bereganatu baitzuten psikologikoki eta soziologikoki, haien kolaboratzaile izan ziren-eta. Zelai-zaindaria berak baino "esku gogorragoak" izan ziren, gainera, oso maiz eta horrelakoek ezarri zizkioten zigor*

mingarrienak zelaira behartutako xumeenari eta, adibide bat jartzeko, SSetako kideek baino sarriagotan eta bortizkiago jipoitzen zituzten gizagaixo ahulenak” (26).

Jipoi fisikoek baino min handiagoa eragiten zieten begiraleen aldetik jasan beharreko irainek. Hala dio Frankl berak, begiralea gertutik begira duen batean: *Hitzik esan gabe begiratzen dit aldi batez. Okerrenak datozkit burura, agerian baitago nik egin ahal izan dudana lan eskasa. Orduan: “Hi, zerri halakoa! Hiri begira zeramaat aldi bat! Aurki erakutsiko diat nik lan egitea zer den. Hortzekin zulatu beharko duk lur hau guztia! Hementxe akabatuko haiz, neu arduratuko nauk-eta horretaz! Nahikoa izango dituk bi egun hireak egin dezan! Ez duk hire eguneroko ogia irabazi oraindik! Zer hintzen, ba, zerri hori lehenago? Bulego-buru, akaso? Zer diok orain?” Ez dit axolarik ezertxok ere. Serio hartu behar dut, halere, hiltzeraino behartuko nauelako mehatxua. Zutik jarri eta begietara egiten dio so: “Sendagilea nintzen; sendagile espezialista”. “Zer? Sendagilea haiz, orduan? Gaixoei dirua lapurtu dien sendagilea? Sinesten diat, bai, hori!”. “Langidari jauna: gaixoen zerbitzuan egin dut nik, sinetsi nahi ez baduzu ere, neure lana doan, atzera eta aurrera doan ibiliz”. Jasan ezina gertatu zaio, nonbait. Nire gainera dator arrapaladan eta lurrera botatzen nau, ero baten modura garrasi egiten duela. Ez dut gehiago gogoan” (59-60). Honela aitortzen du lerro batzuk lehenago: *Kolpeekin batera datozen irainak dira, uler daitekeenez, minik handiena eragiten dutenak (58).**

Datu biografiko bat ere ikus daiteke irakurri berri dugun pasarte horretan: gizarte-zerbitzu moduan ulertzen zuen Frankl-ek bere sendagile-lana, kontzentrazio-zelaiko izugarrikeriak nozitu aurretik ere. Datu interesgarria da bere nortasuna eta izaera ulertzeko orduan.

Frankl-en nortasun gizatiar horren lekuko litzateke, nire iritziz, beste pasarte hau ere: *Gaixo kutsatuen barrakoirira joan beharra nuen (tifusak kutsatutakoak artatzera, alegia). Nire lagunen aholkuei muzin egin eta beste sendagile lanpetuek hartuko luketen jarreraren aurka, baiezkoa eman nuen berehalakoan. Argi nuen erabaki hark heriotza ekarriko zidala epe nahikoa motzean: nire heriotzak, han hiltzekotan, zentzu bat izan behar zuela erabaki nuen une hartan. Zentzu handiagoa ikusi nion nire kideei sendagile moduan laguntzeari, lurra lantze hutsean zahartzen joan eta landare moduan bizitzeari baino (93). Ildo berekoa da beste hau ere: Nire ardurapeko gaixoengana inguratzen naiz azkeneko aldiz (ihes egiteko saioaren aurretik, alegia). Hiltzear dagoen nire herrikide bakarrarengana gerturatzen naiz, dagoen egoeran egonda ere, nire ahalegin guztiz bizirik iraunarazten saiatu naizenarengana. Ezin eman diezaioket ihes egiteko nire asmoen berri, erabateko sekretupean gordetzekoa baitut. Herrikideak badu, halere, zerbaiten susmoa (urduriegia nagoelako, agian), zera galdetzen baitit ahots isilean: “Ihes egitekoa al zara zeu ere?”. Ezetz erantzuten diot. Ezin dut haren begirada ahaztu. Beregan itzultzen naiz beste gaixo guztiak ikuskatu ondoren. Eta itxaropenik gabeko bere begiradak jotzen nau berriro, salatu nahiko banindu bezala. Lagunarekin batera ihes egiteko erabakia hartu nuenean sumatu nuen sentipen gaziak hartzen nau berriro sakon-sakonean patuari bere bidea egiten uzteko nire irizpide nagusia hautsi nuelako edo. Barrakoia utzi eta erizaindegian diharduen nire lagunarengana jotzen dut zalapartaka, ihesbidean ez diodala lagunduko esateko. Gaixoen ondoan jarraitzeko erabakia hartu eta sendagile-kideari nire laguntzarik ez duela izango adierazi bezain azkar utzi nau barnean sumatzen nuen sentipen gazi hark. Ez dut ondorengo egunetan gertatuko denaren berririk; nire ardurapeko gaixoengana itzultzen naiz berriro, barnea, inoiz ez bezala, bake osoan dudala eta erabaki sendoz (106-107). Zerbait adierazten horrek guztiak Frankl-en izaeraz.*

Eskerrak emateko ordua

Erein argialetxea eskertu nahi dut lehenik eta behin, liburu honen itzultze-lana nire ardurapena jarri zuelako. Ez dakit nigan jarri zuen konfiantzari zuzen erantzun ote diodan.

Inazio Mujika Ereineko editoreari, egin zizkidan zuzenketa-proposamen ugariak asko hobetu baitute nik burututako lana.

Donostiako Logoterapia Elkarteko arduradunei: horiena izan baita liburu hau euskaraz jartzeko eskabidea eta proposamena.

Agustin "Iturri"ri, liburu hau argitaratzeko jarri duen arduragatik eta jarri dion estalkiagatik.

Lontxo Oihartzabal Rezola
Itzultzailea eta Hezkuntza eta Filosofia fakultatean irakasle izana